

# Kataluniak zuen elkartasuna behar du

Urriaren 1ean, lau milioi katalanek gure autodeterminazioaren inguruan bozkatu genuen, espainiar gobernuak milaka polizia paramilitar bidali zituen gu bortizki erasotzeko. Alde batetik herriak jasotako bortizkeriak eta beste aldetik irmotasunez hauteskunde mahaiak defendatu zituzten ehun milaka lagunek marrazten dute gatazkaren nondik norakoa.

Katalan jendartea anitza da, elkarte, erakunde zein ekimenen oinarrietatik sortzen da eta pentsamendu aurrerakoietan oinarritzen da; hainbat politika martxan jarri dituztenetik: emakume eta gizonezkoen arteko benetako berdintasunaren aldekoak, etxe kaleratze eta pobrezia energetikoaren aurkakoak; frackingaren aurkakoak; energia nuklearrari zergak, zezenketen debekua; gomazko piloten debekua ... (neurri hauek guztiak estatu espainolak legez kanpoko jo zituenak.) Aurten, Katalunian, Europa osoko errefuxiatuak hartzearen aldeko manifestaziorik handiena gauzatu da. Bartzelona eta Cambrilsen jasandako atentatu latzei erantzun zien manifestazioa bakea, arrazismoaren aurkako eta elkarbizitzaren aldeko oihu bat bihurtu zen. Ez diezaiotela inork jendarte honi etnizista edo atzerakoiak izatea egotzi.

Independentziaren alde edo kontra egotea zilegi da, baina herri katalanaren etorkizuna erabakitzeke duen eskubidea errespetatu behar da. Biolentzia polizialak eragindako zaurituak 900 izan arren, urriaren 1ean argitasunez erabaki genuen.

Urriaren 1eko autodeterminazio erreferendumean, bi milioi pertsonatik gorak bozkatu zuten errepublika katalan independente baten alde, bozkatzaileen %90ak. Parte-hartze maila gaur egungo autonomia estatutuak edo europar konstituzioaren inguruko galdeketek izan zutena baina handiagoa izan da, eta hauen zilegitasuna ez zen kolokan jarri. Errepresioa kontutan izanik, parte-hartzea egundokoa izan zen. 2.300 hauteskunde-kolegiotatik 400 itxiak izan ziren

ekintza polizial edo administratiboen ondorioz, 770.000 pertsonari boto eskubidea urratuz.

Era berean, ezin ditugu ahaztu espainiar haitez legediaren menpe egindako erreferenduma izateagatik bozkatu ezin izan zuten pertsonak (azpian sinatzen dutenak besteak beste), nahiz eta bertan urte askoz bizi, beraien jatorria dela eta boto eskubidea ukatzen zaien horiek. Hala ere, katalan herriaren erabakitzeko eskubidearen defentsan aktiboki parte hartu dute.

Azken aste eta hilabeteetan, pertsona asko izan dira ikertuak, epaitegietara eramanez edo baita beraien ideietatik atxilotuak ere; polizia paramilitar espainiarrak gobernu katalaneko bulego eta komunikabideetan sartu da eta 150 web orri itxi dituzte. Gaur egun, Katalunian pairatzen den salbuespen egoerak neurri askotan diktadura frankista gogoratzen du. Espainiar estatuak sufritzen duen gabezia demokratikoen beste adierazgarri bat da, estatu bat non oraindik hainbat diren diktadurapean desagertuak eta faxismoak zigorgabetasun larri batean darraien.

Badakigu, erabakitzeko eskubidean biztanleriaren %83ak babesten duela, independentziaren inguruko iritzi ezberdinak kontuan izanda ere. Herri bat gara. Oinarrian lan egiten dugu eta bertan jarraituko dugu lanean, harreman sozialak ez daitezen apurto eta ez gaitzaten banandu. Hau, prozesu konstituziogile baten barruan posible izango da, eztabaida eta jendarte berri baten eraketa baten barruan, zeinek berrikuntzak sozialak ekarriko dituen mundu guztirako. Ezin izango genuke egin halere eskubide

demokratiko zein sozialen gabetzeekin, honek errepresioak irabaztea ekarriko bailuke.

Espainiar gobernuak ez gaitu entzun nahi, urteetan entzun ez gaituen bezala eta momentuz beste estatuen gobernuek babesten dituzte. Nabaria da herritarren zati handi baten presiorik gabe ez dela posible izango gure eskaera demokratikoak entzutea.

Hori dela eta, beharrezkoa da munduko jendarte zibilak errepresioa gaitzetsi eta kataluniar herriaren erabakitze eskubidea babesa agerikoa izatea.

Pertsona zein erakundeei martxan jartzea eskatzen dizuegu, Kataluniako eskubide demokratikoen defentsarako eta errepresioaren aurkako mugimenduak sortuz. Herri katalanaren borrokak erakusten digu, herri parte hartzean datzala bere indarrak. Hau dela eta, animatzen zaituztegu honakoak egitera:

- ★ Mobilizazio eta presio espazio bateratuak sortzea #Kataluniarekin bat egin nahi duten indar demokratiko eta aurrerakoi guztiekin.
- ★ Ekitaldi publikoak egitea, kalean geldialdiak eta bestelako ekintzak benetan Katalunian pasatzen ari dena zabaldu eta espainiar estatuko sektore

atzerakoi zein beren aliatuek zabaltzen dituzten bertsioak deuseztatzea.

- ★ Manifestazio eta elkarretaratzeak deitzea: zuen tokiko agenda kontuan izanik; nazioarteko deialdien parte bezala; edo Kataluniak pairatu dezakeen errepresio hazkundearen ondorioz erantzun urgente bezala.
- ★ Imajinazioa eta bat-batekotasuna martxan jarri! Beste modu bateko ekintza moduak pentsatu eta funtzionatzen badute, esaguzue zabal dezagun.
- ★ Kataluniara delegazioak bidaliz gure borrokan lagun gaitzaten; Bartzelonan nazioarteko topaketa bat egitea pentsatzen gabiltza.

Hiri zein herrialde bakoitzean ulertu behar da zer dagoen jokoan. Gaur erabakitzeko eskubidea zapaltzen bada, bihar beste oinarrizko eskubide batzuk izan daitezke zapalduak.

Katalunian ematen ari den borroka gure lurreko gehiengoaren justizia eta demokraziaren aldeko borrokaren parte da. Hortaz, mesedez aktibatuz ezazue Kataluniaren alde elkartasuna. Zuengatik eta guregatik.

